



6.000 TRAVEL CLUB PUNTUKO 10 SARIEN ZOZKETA

1.- Erakunde antolatzailea eta zozketaren data

Caja Laboral Popular S. COOP. sozietateak —aurrerantzean LABORAL Kutxa—, helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) —Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500— duenak, 6.000 Travel Club puntuko 10 sari zozkatuko ditu, sustapen baten barruan.

2.- Doakotasuna

Zozketa hau doakoa da. Hortaz, saria irabazteko ez da kuotarik edo kopuru osagarririk ordaindu behar.

3.- Zozketan parte hartzeko legitimazioa

Pertsona fisikoak diren 18 urtetik gorako bezero guztiek hartuko dute parte zozketan, baldin eta kanpainak iraun bitartean (2018-10-10etik 2018-12-10era) Mugikorreko Alerta-zerbitzua kontratatu badute eta aktibo eusten badiote kanpaina amaitu bitartean. Saria eskuratzekotan, Travel Clubi atxikitako LABORAL Kutzaren kreditu-txartela izan beharko du bezeroak. NAN bakoitzeko sari bat baino ez da emango. Zozketak prozedura informatiko bidez egingo dira.

Zozketatik kanpo geratuko dira LABORAL Kutzako langileak eta zozketarekin zerikusi zuzena duten pertsonak.

Irabazleek egunean eta positiboan izan behar dituzte entitatearekin kontraturiko produktuak eta/edo zerbitzuak eta harreman ekonomikoa. Bestela, saria baliogabetzeko eskubidea erabili ahal izango du entitateak.

4.- Zozketa

Zozketa ausazko sistema informatikoaren bidez egingo da, jakinarazpenetan adierazitako epealdietan zozketaren baldintzak betetzen dituzten pertsona guztien artean.

Gainera, zozketa bakoitzean ordezko 10 izen aterako dira, badaezpada, irabazleak baldintzak betetzen ez baditu ere.

Entitatearen datu-basean gordetako bezeroen datuak erabiliz, 2 egun balioduneko epean saridunen batekin harremanetan jartzerik ez badago, saria lehen ordezkoarentzat izango da eta, ondoren, hurrengoentzat, zozketan ateratako hurrenkerari jarraiki.

Zozketa eguna 2018ko abenduaren 17a izango da.

5.- Sariaren azalpena eta entregatzeko modua

6.000 Travel Club puntuko 10 sari zozkatuko dira. Entitateak egoki deritzen moduan eta lekuan emango ditu sariak.

6.- Sariaren fiskalitatea

Saria indarreko legedian ezarritako zergaren eraginpean egongo da. Sariak zerga-karga ekonomikorik badu, LABORAL Kutzak ez du bere gain hartuko. Zergaren alorreko gastu guztiak irabazlearen kontura izango dira.

7.- Irudi-eskubidea lagatzea

Zozketako irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izango badu, LABORAL Kutzari baimena eman behar dio bere izen-abizenak saritu gisa argitaratzeko, Entitateari sustapen hau hedatzeko egokiak iruditzen zaizkion argitalpenetan edo komunikabide telematikoetan. Baimena eman ezean, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezkoari emango zaio.

8.- Oinarriak onartzea

LABORAL Kutzak eskubidea izango du, zozketa honen inguruan sortzen den edozein auzi edo eztabaida egoki deritzon legez bideratzeko, baita sustapena geroratu, aldatu edo bertan behera uzteko ere.

Bezeroak zozketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek oso-osorik onartzea. Oinarriok hemen kontsulta daitezke: www.laboralkutxa.eus.